

Ttiki-ttaka

euskaldunon aldizkaria, 30. Zk.




Ale Berezia!

Aunkibidea


HERRIZ HERRI

Bastida	4
Biasteri	6
Eskuernaga	9
Lantziego	10
Lapuebla de Labarca	12
Mendabia	13
Oion	15
Samaniego	16



ERREPORTAIAK

Lehenbiziko nekazariak	17
Iruña-Veleia. Egiarik gabeko "justicia"	21
Euskaraldia 2020	24
Bizi gira, kutxa bira!	27
Euskaltzaleen Topagunea. Sorrera eta egoera	30



ELKARRIZKETA

Esti Redondo	32
--------------	----



DENBORAPASAK

Denborapasak	37
--------------	----

NON GOGOIA, HAN ZANGOIA

Non gogoia, han zangoia	40
-------------------------	----

Hemen jarraitzen dugu!

Berriro hemen gatoz zuengana Ttiki-Ttaka aldizkariarekin. Iaz bizi izan genuen egoera zela medio, ez zen giro 2020 madarikatuko alea ateratzeko, baina aurten bai! Eta, gainera, digitalean.

Iaz, etengabe eta indartsu azaleratu zen hitzetariko bat “erresilientzia” izan zen; alegia, arazo, ezbehar eta traumei aurre egiteko ahalmena. Urte batzuk lehenago “Aurrera Altsasu” abestiak ere txarrenari onena ateratzeko deia eta ahalmena lehenesteko mezua zabaltzen zuen. Beharko, ezta?

Eta osasun, ekonomia, psikologia... anabasa, triskantza honetan non dago euskara? Nola dago euskara? Asmatu ote dute txertorik euskararentzat?

Hizkuntza komunikatzeko tresna dugu, baina aurreko urtetik orain arte kalean ia ez gara egon, jende bilkurak debekatuta egon baitira; beraz, gure hizkuntza erabiltzeko aukerak asko murriztu dira: esaterako, mintzalagun eta gurasolagun antzeko proiektuak moztuta edo online gelditu dira, euskararen aldeko Ikastolen jaiak, Korrika, bertso afari edo bazkariak, EKA... denak albo batean gelditu dira. Aurreko ekintza horiek guztiek ez egiteak gure hizkuntzaren normalizazio-prozesuan eragina izan dute eta daukate, zeren larrialdi egoeretan pragmatismoa da nagusi; ondorioz, normalizazio proiektu eta planak ez dira bete, gauzatu, egin... Covidaren erruz?

Etorkizuna nolakoa izango den ez dakigu, baina aurrera begira jarri behar gara eta, berriro, euskara gure egunerokora ekarri behar dugu. Gure hizkuntzaren

normalizazioa lehentasuna duen gaia izan behar da, eta euskararen erabilera bultzatzeko ekintzek gure agendetan aurreko lekua izan behar dute, txertoek ez baikaituzte euskaldunduko.

Euskaraldia eta aurretik aipatutako proiektuak euskara osasuntsu bizitzeko hauspoak dira, erabilera dutelako helburu euskaltzaleen sarea eraikiz. Bestalde, azpimarratzekoa da urrats garrantzitsua eman dela administrazioa eta euskalgintzaren arteko zubia sendotzen, baina oraindik bidea luzea izango da, baldin eta administrazioen konpromisoa hitzetatik eta diru publikoa banatetik ekintza sendo eta egonkorretara pasatzen ez bada.

Ttiki-Ttakan argi daukagu Arabako Errioxan ekintza xumeak baina konstantziarekin eginda aurrera egin dugula eta egingo dugula. Inurriak bezala ibili gara. Batzuetan botila erdi beteta ikusi dugu, eta erdi hutsik beste batzuetan, baina, horrelakoetan, elkartea 1992an sortu zenean zein zen egoera eta zein den egungoa pentsatu besterik ez dugu. Aurrera egin dugu, baina, bai, egia esan, urrunago ere egon gintezkeen.



bastida.....

Eider Eta Xabi



Eider Manzanos Amurrio eta Xabier Perez Arinasekin bildu naiz Bastida Ikastolan arratsaldeko bostetan, umeak ikastolatik ateratzen ari diren momentuan. Eiderrek irribarrez begiratzen dio egoerari, orain dela urteak bizi izandako esperientzia hura gogora ekarri baitu. Xabi lanetik atera da bere ikaskideekin momentu horretan. Ahatekumeek ahateari jarraitzen dioten moduan, Bastida Ikastolan dagoen irakasleari jarraitzen diote gurasoen besarkada jasotzeko prest. Gaur egun, Arabako Errioxan lan egiten dute biek.

Bastida ikastolako bi ikasle hauen hitzak irakurriko ditugu, baina galde diezaiekegu ikastolatik igaro diren 1.000 ikasle baino gehiagori Bastida Ikastola entzutean, burura etortzen zaien lehenengo pentsamendua, eta jasotako erantzunen artean familia, errespetua, lagunak, ohiturak, euskal dantzak, euskara, baloreak, hezkuntza, izaera, nortasuna, indarra, borroka, herria, ingurumena, barnetegiak, dibertsitatea, hezkidetzak, gizarteratzea, lankidetzak, taldeko lana...errepikatuenak izango lirateke beste askoren artean.

Baina entzun diezaiegun Eider eta Xabierri; beraiek ez ziren lehenengo belaunaldikoak izan. 1979. urtean izan ziren lehen ikasleak sartzen, 9 ikasle izan ziren gela bakar batean. Garai hartan egoera latza zeukaten euskarak eta euskal kulturak Bastidan, eta Ikastola ezarri nahi zuten gurasoek: hezkuntza sistema berri eta moderno bat aldarrikatzen zuten. Galdutako printzipioak berreskuratu nahi zituzten. Euskara eta euskal ohiturak Bastida herrian finkatu nahi zituzten.

Eta gurasok zein langilek lortu egin zuten. Izan ere, 17 urte geroago 1994. urtean jaiok (Manzanos eta Pérez) 1996. urtean sartu ziren Bastida Ikastolan. 2 urtekoen gelan sartu ziren lehenengo aldiz. Lehen Hezkuntza bukatu ondoren, 2006an, Bastida Ikastolak bere eraikin

Tfiki-ffaka 2021. Ale berezia!

propioa egin zuen. Izugarritzko ahalegin ekonomikoa suposatu zuen ikastolarentzat, baina izaera propioa duen ikastola batek eraikin propioa merezi zuen. Xabierrek eta Eiderrek DBHko 1. eta 2. maila inaguratu zuten eraikuntza berrian. Gurasoentzat atsedena zen seme-alabek ikastetxean bi urte gehiago ikasi ahal izatea, eta hain adin goiztiarrean beste herri batera joan behar ez izatea.

Ikastolan bildu ginen hirurok, eta oroitzapenak partekatu genizkion elkarri. Emozioak azalera ziren; bizipen hauek konpartitu zituzten:

Eider Manzanos Amurrio gaur egun, Eskuernagako LUIS CAÑAS BODEGAN ari da lanean, laborategiko laguntzaile, hain zuzen. Bere lagunekin egiten zituen jolasak eta beraiekin egindako irteerak eta barnetegiak gogoratzen ditu gehien. Yolanda, Ketxu, Bea, Ibone eta Soko irakasleen klaseak ere nahiko gogoratzen ditu: *“irakasteko modua aldatu zuten, eta irakasleak ez ezezik, hezkuntza prozesuan ere lagundu zuten”*, aipatzen du. Gaur egun Bastidako eta ondoko herrietako lagunak izaten jarraitzen du.

Xabier Pérez Arinas Bastida Ikastolako irakaslea da gaur egun. Berak jasotako baloreak transmititzen jarraituko du Ikastolan ikasten ari direnentzat. Xabik familia handi baten beroan babestuta egotea eskertzen du, eta familia handi horren parte izatea erabaki zuen orain dela urte bi. Oroitzapen asko ditu eta denak maitasunez gogoratzen ditu: *“Urte batean Yolandak joku batekin jolasten irakatsi zigun. Jolasa koloretako makilekin eta puntuekin jokatzen zen. Ikasturte osoa igaro genuen jolasten, eta kurtso bukaeran, Yolandak joko bana oparitu zigun; oraindik gordeta dut etxean”*.

Horretaz gain, lagunak eta euskara aipatzen ditu. Euskara eta ingeles maila oso aurreratuarekin bukatu zuen, eta horri esker Arabako Errioxan dabil lanean. Ingeles irakaslea izateko aukera dauka, eta 2. mailako tutorea da. Lagun berberak izaten jarraitzen du, oso harreman estuarekin gainera, Bastidakoak zein gertuko herrietakoak ere.

Denok bat gatoz, beraz, hauxe esatean: *“eskerrik asko Bastida Ikastola eta eskerrik asko gaur egun garena izaten lagundu diguzuen guztioi”*.



biasteri.....

Leonor Andrea



Juliak San Raimundo ospitalean eman zuen azken hatsa ordu batean. Halaxe adierazten du heriotza-agiriak. 1942ko maitzaren 29a zen. 46 urte zituen orduantxe sei seme-alaben amak; geure amonak. Birikeriak jota zendu ei zen; tuberkulosiak jota, seguruena.

Garai hartan gaitz ikaragarriak lagun askoren bizitza eraman zuen Arabako Errioxan. Gerraren ondorenean, gosetea, pobrezia... Triskantza.

Oso gaitz ezezaguna zen, eta ez zekiten hari nola egin aurre. Oso gutxi ateratzen zen onik, eta horietako askok betirako arrasto larriak pairatzen zituzten.

San Raimundo ospitalea, edo hobe esanda, gaixoetxea (sanatorio) 1920an inauguratu zuten; behartsuentzako ospitalea zen. Baldintza hori jarri zuen Argentinan jaiotako andra batek. Berak gastu guztiak hartu zituen bere gain. Ongileak Leonor Rambaud y Moyano zuen izena. 98 urterekin hil zen Buenos Aireseko Almirante Brown distrituan 1926an, Julia baino 16 urte lehenago, hain zuzen. Amona, bederen, ederki artatua zendu zen Rambaud andreak eraikitako gaixoetxean: pobreek euren etxeetan izaten zuten betirako loa.

Rambaud Añes (Araba) herriko Raimundo de Udaetarekin ezkondu zen, eta urte batzuk geroago alargun geratu zen Leonor Andrea. Senarrak hil aurretik zenbait gogo edo asmo utzi zizkion emazte alargunari, eta honek zeharo bete zituen.



Aberats askok egiten omen zuen halakorik, karitatezko ekintzak, alegia. Horrela, ZERUtik gertuago zeudelakoan batzuek; beste batzuek, aldiz, borondate onez egingo zuten... Leonorren bizitzaren gaineko artxiboek edota idatziek halaxe erakusten dutela ematen du. Nolanahi ere, pertsona askori mesede egin ziona argi dago.

El 3 de Noviembre de 1.908 se firma en la ciudad de Buenos Aires una escritura de mandato en la que Dña. Leonor Rambaud y Moyano, viuda de D

Raimundo de Udaeta Arechabala expresa: Que es su voluntad tributar un homenaje de respeto y cariño a la memoria de su finado esposo y con tal objeto quiere llevar a efecto las siguientes obras pías. Primero:

Tfiki-ffaka 2021. Ale berezia!

Reedificar la Iglesia y la Escuela del Pueblo de Añes, Provincia de Álava, Reino de España; distribuir pensiones entre los obreros que más se distinguirán por su laboriosidad, así como entre los hijos e hijas de familia que hubieren realizado mayores sacrificios en favor de sus padres, siempre que ellos sean vecinos del distrito de Ayala, y Segundo; Deducida la suma que según criterio del mandatario, destine a los objetos expresados en la cláusula anterior, el remanente de la que más adelante se mencionará y que constituye el total de lo que la compareciente desea que se invierta, se destinará a la construcción de una escuela de primeras letras o bien de artes y oficios, y a la de un hospital todo lo que el mandatario podrá hacer erigir, según su juicio, en alguna localidad del mencionado distrito de Ayala o en Vitoria, u otro punto de la Provincia de Álava. Para llevar a ejecución las citadas obras, la compareciente otorga por este acto poder suficiente al Señor Casimiro Pando-Arguelles y Castañón (sic).

Ospitalea eraikitzeke Biasteri herria aukeratu zuen, alabaina, Arabako Errioxako jende behartsu guztia zuen gogoan segurutik Leonorrek. Biasteriko orduko mandatariekin dezentetan bildu ondoren, forma eman zioten proiektuari (agiri ugari dago horren inguruan), eta, hala, 1920an inauguratu zuten San Raimundo ospitalea.

Biasteriar askorentzat herriko Plaza Nagusiaren izena baino ez da Leonorri eskainitako plaka (2013an, gutxi gorabehera jarri zuen Udalak) Litekeena da historiak ahaztutako emakume xumea izatea.

Ospitalea zena, egun, “Samaniego” lanbide-heziketako eta batxilergo institutua da.



Pandemiari Aurre Egiteko Kultur Ekitaldiak



Inguruko herrietan dauzkadan lagunek sarri esaten didate adarra jotze aldera: "Biasterin beti izaten duzue zerbait ospatzeko; bestela, asmatu egiten duzue. Beti izaten da jairik Biasterin". Jakina, beti txantxetan eta lagunartean.

Oso lagun onak ditut Arabako Errioxan, bai horixe! Baina pandemia garai honetan, kaskoari buelta batzuk emanda, ez zaiela arrazoirik falta esan behar dut.

Dakizuenetz, gure jai nagusiak ekainean izaten dira, San Juan eta San Pedroren omenezko jaiak, hain zuzen. Baina urtean zehar, batzuetan Udalak antolatuta, eta, beste batzuetan herriko elkarte sare handiak edota beste lagun-talde batzuek antolatuta, hainbat ekitaldi ateratzen dira aurrera: hitzaldiak, kontzertuak, jardunaldiak eta bestelakoak.

Zoritarrez, ez ditugu ekitaldiok behar bezala baloratzen edota estimatzen, baina egiterik ez dagoenean, aurten bezala, faltan sumatzen ditugu. Orduantxe ikusten da herriko elkarteek egiten duten lan handia. A ze altxor handia daukagun Biasteriko elkarte sarearekin!

Pandemiak eraginda ezin izan da nahi genuen guztia antolatu, hala ere, Udalak eta aipatutako elkarteek buru-belarri jardun dute ekitaldi zenbait aurrera ateratzeko, baina bistan denez, ezinezkoa izan da hainbeste ekitaldi antolatzea. Gainera, egin direnak egokitu eta moldatu behar izan dira. Iazko jaietan, esaterako, etxeetatik egin ziren lehiaketak edota antzerkiak online.

Biasteri oso herri arduratsua da kultur arloan -horixe aipatuko diet beste herrietako lagunei hurrengo batean, kar, kar-. Pandemiaren aurretik ospatu zirenak aurrerantzean egingo ditugunekin alderatuta txiki geratuko dira -hau ere aipatuko diet, jakina 😊-.

Badakit ideia berri asko daudela; hainbeste denbora kaskoa berotzen eman eta gero...

Gonbidatuta zaudete denok!!!

eskuernaga.....

Udaberriaren Lanbroan Isiltasun Distiratsua

Gaur goizak lanbroa ekarri digu Eskuernagara. Bai karriketan bai errepideetan, geure sentzumenak zorrozten zaizkigu bakarrik aurre-aurrean daukaguna ikusten baitugu. Eta kontura gaitzke: askotan ezin dugu aurrean daukaguna ikusi.

Eskuernagako auzokide berria naiz eta altxorak egunero deskubritzen ditut.

Duela hilabete bi, lur eta mahasti marroixkek paisaia betetzen zuten.


Egunez egun, pausoz pauso, tipi-tapa, orlegia agertzen joan zen.

Nahiz eta jaiotze isil honen melodia gure egunerokotasunean apurka-apurka sartzen zen arren, bat-batean paisaia berdea bilakatu zen: Eskuernagako eta Arabako Errioxako mahasti guztiak berdez jantzita zeuden... eta badaude. Bizi dugun negu luze horren atzean, supituki, ez da existitzen.

Atzera joan ezinik, orlegi atera berrian murgilduak gara. Ezin dugu gelditu.

Konturatu barik beste etapa batean gaude; berriro hasteko beste une batean etortzear dauden promesaz eta ilusioz josita dagoen aroan.

Hor dago. Hor gaude. Mitxoleta bat mahatsondoen artean, bakardadean distiratsu. Bihotz gorri bat haizeak laztanduta.



Lantziego.....

Kronikatxo

Azken urtean Lantziegon gertatutako albiste interesgarri bat? Ba suposatzen dut herri gehienetan bezala, ekintza gehienak bertan behera geratu direla egoeraren ondorioz, baina horra hor azken urtean Lantziegon gertatutakoaren kronika laburra.

Konfinamenduak sekulako aldaketak ekarri zituen herrian; bat-batean, kalera ateratzea luxuzko ekintza bihurtu zen, eta argi ikusi genuen edozein aitzakia baliagarria izan zitekeela horretarako. Ordura arte etxean pentsaezina zen zaborra botatzera joateko txandakatzea, baina gertatzen zen. Horrez gain, herriko dendara edota okindegira sartzeko sekulako ilarak egiten genituen. Distantzia sozialarekin batera, jendea ere hitzak neurtzen hasi zen (ez dut sekula horrelako herri hotzik ikusi). Eskerrak pixkanaka-pixkana egoera hobetzen joan zela eta poza eta algarak bueltatu zirela herrira.

Maiatzaren 15ean atera ginen lehenengo aldiz. Herri askotan bezala, San Isidro ospatzen zen egun hartan, Lantziegon danborrada, *lunch*-a eta trikipoteoa ez ziren inoiz falta, jakin badakigu-eta biztanle nahiko parranderoak ditugula herrian. Baina pasaden urtekoa oso desberdina izan zen: ekintzarik ez, kaleak ia hutsik, adineko jenderik ez eta gazte talde pare batek tabernak betetzen. Egun arraroa eta desberdina izan zen arren, gogoz ospatu genuen berriz kalera ateratzearen aukera, eta nekazarien eguna, jakina. Hori bai, hurrengo egunean espero bezala, gazteoi lehenengo kritikak gure elkarteratzeen ingurukoak... Bizi garen egoeraz kontzientek garena argi dago, baina aldian behin, geure aurre-pandemiako bizitzako momentuak gogoan izatea ezinbestekoa dugu.



Uda heltzarekin batera, jendea gehiago ateratzen hasi zen, eta horrek Lantziego berpizten hastea ekarri zuen. Ez ziren hain gustuko ditugun herriko jaiak heldu, baina pintxo-poteak eta kontzertuak bai (online), baina behintzat ekintzaren bat antolatzeko aukera izan genuen. Tabernak nahiko goiz ixten zituzten, eta horrek herriko beste toki batzuk baliatzea ekarri zuen. Gazteok eta ez hain gazteok lekuren bat behar genuen gure artean biltzeko, eta, azkenik aurkitu genuen; bestela galde diezaiotela “huerto del fraile” parkeko fraidearen estatuari... Inguruko herrietako jai ezak zerbait ona ekarri zuela ondorioztatu daiteke: herriko adin guztietako gazteen artean harremanak askoz gehiago sustatzen hasi ziren.

Masifikatutako uda igaro genuen, bai, masifikatua, alajaina. Normalean udako zenbait egunetan etortzen ziren udatiarrek uda osoa pasa zuten herrian, eta horiez gain, turistak ere izan genituen Lantziegon. Pentsaezina gure herrira hainbeste turista etortzea, baina etorri ziren, eta oraindik ere bakarren bat ikus daiteke.

Tiki-taka 2021. Ale berezial

Oporren amaiera, murrizketa berriak, konfinamenduak, eguraldi txarra eta berriro ere kale isilak -astean zehar, batez ere-. Asteburuetan egoera pixka bat aldatzen zela esan dezakegu, baina argi dago ez dugula pandemia aurreko giro aparta, eta ez dela hainbeste jende kalera ateratzen, adineko jendea, batez ere; kasu askotan beldurra beti da etsai.

Asko ziren azken urte honetan Lantziegon ospatu beharreko ekintzak, horien artean Arabako Errioxan hain maitatua den *Mahats Bilketaren Jaia*, baina egoerak abagunea eman arte badakigu pazientziaz beste pare bat urte itxaron beharko dugula. Baina lasai egon, Itoitz taldearen *lau teilatu* kantak dioen bezala, berriz izango gara zoriontsu (edo zoriontsuago) edozein herriko jaixetan (edo uzten gaituzten lekuan).



Lapuebla de Labarca.....

Lapueblako Rolloa

Rolloak edo beste leku batzuetan **Pikotak** harriz egindako zutabeak dira, eta gurutze edo bola izaten dute punturik garaienean. Tokiko kategoria administratiboaren adierazgarri izaten ziren; izan ere, bakarrik eraikitzen ziren berezko jurisdikzioa zuten hiribilduetan, eta hiribildu horrek zuen erregimenaren adierazgarri izaten zen: Errege jaurerria, kontzejua, Elizaren menpekkoa edo monasteriokoa. Gainera, lurraldearen muga erakusten zuten, eta zenbait kasutan, hiribilduaren sorreraren oroigarri izaten ziren. Aldi berean, urkabeekin batera bigarren funtzio bat ere bazuten, akusatua jendaurrean lotsarazteko, exekutatuaren burua jartzeko; oro har, justizia zigorrak gauzaten ziren lekuak ziren.



Rollo hau zehazki Lapuebla de Labarcako elementu zibilik antzinakoetako bat da, eta bere jurisprudentzia zibil eta kriminalaren erakusgarri da, baita lurralde jurisdikzioarena ere. Azken hori Felipe IV.a erregeak eman zion 1631ko ekainaren 11n Laguardiako hiribildu eta Lurreko Komunitatetik independizatu zenean 3.000 dukaten truke, eta horrek hiribildu subiranoaren menpeko herrixka bihurtu zuen. Idatzizko eta ahozko tradizioan “Rolloko Larrea” izenaz ezagutzen zen toki hori.

Urteetan Lapuebla de Labarcaren sorrera ikur hau apurtuta eta sakabanatuta egon da jatorrizko lekutik hurbil, eta duela hilabete batzuk zati horiek bildu eta nahiz eta hasierako itxura guztiz ez izan, gure herriko ikur garrantzitsu hau berreskuratu dugu.



mendabia.....

Bazen Behin Herri Txiki Bat...



“Ero Egon” (Youtuben ikusgai); horixe da **Mendabiako Euskara Taldeak** 25. urteurrena ospatzeko abestiaren izenburua eta leloa. Eta zinez beharrezkoa den erotasun puntu hori ez zitzaien falta orain dela mende laurden euskara berpizteko lehengo urratsak eman zituztenei.

Hastapenak ez dira inoiz errazak izaten, jakina, eta hizkuntza zahar honentzat hain zaila den inguru honetan are gehiago. Hala ere, naparrok buru gogorren ospea omen dugu, eta, zailtasunak zailtasun, orduko “gaueskolak” modu erdi klandestinoan antolatzea lortu zuten. Konturatu gabe, lehertzeko zorian zegoen **sumendia** esnatu zuten.

Baina antolakuntza eza nabaria zen, eta euskaraz bizitzeko grina hori hezteko beste “ero” batzuk etorri ziren Oiondik, **IKA Euskaltegikoak** hain zuzen ere. Euskaltegiaren sostengua eta laguntza ezinbestekoa izan da ibilbide luze honetan gaur arte iristeko. Izan ere, eskolak emateaz gain, euskara gelaren hormetatik ateratzea lortu zuen. Berehala iritsi zen gaur egungo herriko egutegian finkatuta dagoen **Apirileko Kultur Astea**: dantzaldiek herriko plazan, kontzertuek, hitzaldiek edo bazkari herrikoiek eman zioten euskarari presentzia handia herriko kaleetan, eta, dudarik gabe, hori izan zen urrats nagusienetariko bat. Esker mila baino gehiago eta gure miresmen sendoena merezi dute ezagutu ditugun handik etorritako irakasle eta lagun guztiek.

Hazia ereinda zegoen, eta laster etorri ziren fruituak. Herriko gazteok gustura parte hartzen genuen IKAk antolatzen zituen ekitaldietan, eta berehala ikusi genuen gehixeago egin genezakeela. Mendabiako Euskara Talde berri bat sortu zen, zabalagoa, herriko euskaldun eta euskaltzale guztiak batzen zituena. **Neska txiki bat** bezala jaio zen, euskarari beste hauspo bat emanaz, euskaltegia iritsi ezin zen lekuak barre politaz betetzeko. Orduan hasi ziren txangoak, **Nafarroa Oinezetarako** autobusak, korrikak eta, nola ez, herriko jaiak aldatu zituen txosna. Taldea guztiz sendotuta zen herrian; ia-ia urte osoan zehar lortu genuen euskararen presentzia mantentzea: Gabonak baino ez zitzaizkigun falta, eta, orain dela hamar urte, lehenengo aldiz, **Olentzero** eta **Mari Domingi** hurbildu ziren Mendabiara. Beldur ginen herriaren erantzuna zein izango ote zen, baina, zorionez, espero genuen baino askoz handiagoa izan zen. Gaur egun Olentzero, Mari Domingi, haren astoa eta **Bixente** trikitilaria ez dira falta abenduaren 24ko arratsaldeetan txikienen ilusioak betetzeko.

Gaur, momentu batez geldialdi txiki bat egiteko parada hartu dugu. Iraganari so egiten diogu, eta esan dezakegu harro gaudela egindakoaz, eta, era berean, gaur egungo egoerak gure mugimendua moteldu arren, ez diogu uzten aurrera begiratzeari. Belaunaldi berriak gogotsu datoz, eta erronka berriak agertzen zaizkigu ortzi-mugan.

Beharbada ez dugu urteurrena behar bezala ospatu, baina, bederen, ibilbide hau guztia gogoratzeko eta Ebro ertzean euskararen alde aritzen diren lagun ero horien guztien omenez, abesti polit hau egin dugu. Zuentzat ere bada. Jarrai dezagun beti Ero! **Ero bada ere**, jarrai dezagun tinko euskara zabaltzen.

Tfiki-ffaka 2021. Ale berezia!





Grafiti berri polita dugu ikusgai Oiongo horma batean. Ez dakigu nork ordaindu duen, baina nabari da lan profesionala dela. Ondo egina. Kolore biziak erantsi zaizkio lehen gris zegoen hormari: gorria, berdea, horia eta, batez ere, lila. Emakumearen askatasunaren eta berdintasunaren aldeko aldarria islatzen da bertan.

Pena da, XXI. mendean, oraindik ere, horrelako mezuak zabaldu beharrean egotea, baina datuak begiratu besterik ez dugu hala jarraitu beharra dagoela ikusteko. Urtero-urtero, 2.000tik gora indarkeria-kasu salatzen dira Euskal Herrian, eta zenbat gehiago ote dago!

Zenbat urte egin dituen emakumeak indarkeria matxista eta sexistaren aurka eta berdintasunaren alde, eta, aurrerapausoak ageri badira ere, zenbat gehiago egin behar ote ditu, eta egin beharko ditu gizarte osoak, guztion inplikazioa ezinbestekoa baita gaitz hau gainditu eta pertsonon berdintasuna, errespetua eta askatasuna lortze aldera.

Euskararen aldeko borrokak ere urte askotako lana du bere bizkarrean; Arabako Errioxan, esaterako, 45 pasa dira lehen ume eta helduek euskaraz ikasteko bideari ekin ziotela. Aurrerapausoak nabariak dira, dela herritarren jarreran, dela ezagutza datuetan, baita erabileran ere. Hala ere, urte askotako lana aurreikus daiteke egunen batean gure eskualde honetan euskara normalizatua egongo bada.

Normalizazio bide horretan egiteko geratzen dena ikusteko “botereak” euskara nola tratatzen duen behatu besterik ez dago, hau da, enpresa pribatuek ez dute euskara kontuan izaten eta administrazioek lege-tramitea betetzeko besterik ez dute bultzatzen. Euskarak eta euskalduntzeak eskualdeko herritarrengan izan duen eraginak ez du islarik ez enpresetan, ez bankuetan, ez udaletxeetan, ez Arabako Errioxako Kuadrillan...

Bai, euskarak aurrera egingo badu, denon inplikazioa behar du. Horregatik ez da ulertzen arestian aipatutako grafiti horretan 3 mezu gaztelaniaz egotea, 2 ingelesez eta 1, bakarra, euskaraz.

Berdintasuna eta askatasuna aldarrikatzen dituen margolan horretan non dago euskararen berdintasuna eta askatasuna? Euskara, emakumea bezalaxe, gutxitua dago gure gizartearen, eta egin dezakegun akats handienetakoa gutxituen artean errespetua ez erakustea da.

samaniego.....

Samaniegon azken bolada honetan gertatu diren berriak hona ekartzea ez da lan erraza. Garaiak ez dira egokienak egundoko egitasmoak abiatzeko. Aurreko urteko panorama ez da gehiegi aldatu, eta giroak ez du gehiegirako ematen. Hala ere, beti izaten dira aukerak, eta horiek bilatzeko ahaleginak egin behar ditugu... horrelako gogortasunean gertatzen diren pitzadurak baliatu behar ditugu.

Batek edo bestek gertuko senide edota lagunak galdu ditu. Gertuekiko urruntzea eta norberaren bakardadea onartu behar izan ditugu, baina teknologiari esker, duela hogeit hamar urte ez bezala, elkarrengandik nolabait hurbilago sentitu ahal izan gara; telelana, on-lineko yoga saioak eta ikastaroak izan ditugu... sare sozialak distantzia fisikoak motzago egiteko. Herritar guztiek elkarrekin ospatu ezin izan ditugunak norberaren etxean prestatutako apaingarri, tradiziozko jaki gozoak eta ospakizunak konpartitu ahal izan ditugu: garai bateko Samaniegoko Jaiak argazkien bidez, Mañak, Santa Agedako kantuenak, Aste Santuko erroskilak eta Judasen epaiketa bideo motzetan eta San Prudentzioko barraskiloak eta abarrei buruzko nahi beste argazki. Era horretan egunerokotasunari nolabaiteko dirdira jarri zaio. Ekimen kulturak urri izan ditugu; ospatu direnek jarraipen zalantzarik izan dute, EUSKARALDIA kasu; norberaren konpromisoa zen garrantzitsua, baina oso jende gutxi heldu zion apaintzearen edo parte hartzearen erronkari.

Gogor saiatu behar izan dugu ezkortasunean eta beldurrean ez erortzeko. Are gehiago komunikabideek esaten zigutenarekin, itsu aritu -eta ari- dira arrazoiak, neurriak, urrutiko egoerak, eta aurreikuspenak egiten. Ez dira, eta ez dira izan, hilabete gozoak agintean eta ardurako postuetarako jendearentzat egoera berri honek aurrekaririk ez zuelako eta asmatu nahian hartutako erabakiak errazak izan ez direlako.

Samaniegoko Udalak bertako saltokien faltan, asteroko azoka antolatu izan du. Pena Euskal Herriko saltzaile edota produkturik ez izatea, ezta ekologikorik ere.

Iradokizunetarako postontzi berria eskuragarri jarri zen; Samaniegon bizi garenok iritziak emateko aukera eman zaigu, eta ez genuke aukerarik galdu behar. Garai hauetako joera orokorra da herritarrei iritzia eskatzea PGOU-Hirigintza Antolatzeko Plan Orokor berriaren inguruan bezala, edo 2030 Agendan bezala. Badirudi komunikaziorako erraztasunak ari garela edukitzen. Etorkizunean konfiantza izan behar dugu; aukera ditugunetan parte hartu, denontzako onurak adostu benetan gizarte eragile bihurtzeko.

Herriko sarrera batean ateratako argazkian zerak ikus daitezke: zabor organikoa birziklatzerako edukiontzia, kimaketa hondarrak hesien atzean, erabilera anitzeko eraikinari atzetik egin zaion gehigarri berria eta kotxeak aparkatzeko zelaia.

Lehenbiziko Nekazariak



David Quintas

Atapueratik etorri berria naiz aspaldiko gogo aseturik. Liluratuta, pozik Miguelonen (*homo heidelbergensis*) nondik-norakoak ezagutu eta gero. Egia esan, ez nuen Burgosen ostatu hartzeko batere asmorik, edota gogorik esan beharko nuke. Bertan lehenengo aldiz izan nintzeneko oroitzapenak datozkit burura. Soldaduzkara joateko garaia zen. “Talla” delakoa Gasteizen egin ziguten gerrarako baliagarriak ginen ziurtatzeko. Ni, berriz, lasai. Aspalditxo esan zidan auzoko ikastetxeko irakasle batek soldaduzka egiteko ere gauza ez nintzela izango: “Ez duzu astorik ere ikusten”, berak. Aurretik ere ikasteko gauza ez nintzela aipatu zidan maisu marianistak.

Gasteizko militarren egoitzan, adeitsuki, goizeko seietako trena hartzeko billetea eman zidan bularrean domina mordoa zeraman militar saldoak. Bidean, trenaren korridorean, yonkiak, ezinduak, depresioak jotakoak eta miope batzuk ginen nor bere baitan. Egun goibela eta hotza, alajaina; Burgosen horrelakoa izan ei da. Militarren ospitalean genuen hitzordua.

Ez nuen soldaduzkarik egiterik izan: ezdeusa nintzen. Hala zioen hilabetera jaso nuen gutunak. Egun, lentillak ibiltzen ditut, eta ikusmena oraingoz gordetzen dut. Burgos zeharo eraldaturik dagoela esango nuke, eta seguru nago Atapuerca zerikusi handia izan duela horretan; agian, bestela begiratzen diot zorioneko asteburuaz geroztik.

Aztarnategian bertan geundela, Álvaro gidaria izenaren kontura hasi zitzaigun: “Según parece Atapuerca es palabra de origen vasco, una especie de tautónimo”. Ezin ukatuko dut halako ilusioa egin zidala esandakoak, euskara irakaslea baita nire ogibidea. Nire atzean zegoen gizonezko batek zera gaineratu zuen ahapetik: “¡Joder! ¿Pero hasta aquí llegaban los vascos?”

Tfiki-ffaka 2021. Ale berezia!

Menos mal que se quedaron por el norte en las montañas...” (sic). Zerabilen biboteak halako militar itxura ematen zion. Militarra ote? Akaso ez.

Izugarri gozatu dut Burgos aldean, baina artegatasunak asaldatu nau tarteka. Izan ere, lagun batek aspaldi artikulutxo idazteko eskatu zidan, eta epea amaitzeko zorian zegoen. Kontu izan, Iñaki (I. Barona. Gasteiz), emotikonorik jartzerik izanez gero, irritxoa duena jarriko nuela.

Zenbaitetan ibili gara elkarrekin Arabako Errioxako ingurumarietan iraganerako bidaia liluragarrian, eta behin baino gehiagotan **lehenengo nekazari** haiek imajinatu ditugu gure ibilbidetxoetan... Argazkilari paregabea da Iñaki, eta berak hartu du artilulua apaintzeko ardura, baita egiteko agindua ere (emotikonoa).

Ez naiz aditua, ez historialaria, ez eta arkeologoa. Ingurua ezagutzeko aukera ederrak izan ditudala esan behar dut. Lagun eta ezagun prestu askok kutsatu naute horretaz eta hartaz, eta neuk ere beste asko kutsatu ditudala pentsatu nahi dut.

Ondo gogoan dut *Sorginaren Txabola* trikuharria ikusi nuen lehen aldia. Errioxara bertaratu berritan izan zen hura, irakasle lanetara. Halako zirrara eragin zidan trikuharriaren handitasunak Guillermok, orain urte batzuk joan zitzaigunak (G. Marina. Laguardia), Bilarreraino hurbildu ninduenean. A. Gortazarrek eta C. Sáez de Tejadak aurkitu omen zuten 1935.ean. Urtebete geroago J.M. Barandiaranek (J. M. Barandiaran Aierbe. Ataun) lehen indusketa lanak egin zituen. Arabako Errioxan aurkitutako lehena zen.

Gerra hotsak zebiltzan Espainian. Barandiaranek Sara herrira (Lapurdi) jo zuen babes bila ezin burutik kenduta atzean utzi zuen altxorra seguruenik. Orduko Arabako Arkeologia Museoko burua (D. Fernández Medrano. Alda-Arana) arduratu zen jarraipena egiteaz-edo; seguru nago, tarteka, Barandiaran jauna bisitatzerako joaten zela Arabako Errioxako aztarna arkeologikoen berri emateko.

Urte batzuk igaro ziren apaiz arkeologoa Euskal Herrira bihurtu zen arte. Gerora etorri ziren *El Sotillo*, *Layaza*, *El Encinal*, *La Cascaja* (Peciña. Errioxa. Arabako Diputazioak 600 pezetatan erositako) eta *San Martin*. L. M. Martínez-Torres EHUKo Geodinamika irakaslearen esanetan San Martin dugu munduko harrizko eraikuntzarik zaharrenetakoa (*Memoria grabada en piedra*. Diario de noticias, 2018/02/05). Vegas Aramburuk (J.I. Vegas Aramburu. Gasteiz) Los Llanos trikuharria aurkitu zuen Kripandik gertu 1982an, eta, ia tarterik gabe, *San Juan Ante Portalatinam* hilobi kolektiboa eta *Peña Larga* harpea. Zalantzarik gabe, garrantzi handiko tokiak dira: sekulako informazioa eman dute hiru bazter horiek.

Orain hiru urte, abuztuaren 24an, hain zuzen, Vegas Aramburu ezagutzeko parada izan nuen. Data gogoan dut aita zenak 88 urte beteko baitzituen orduantxe, San Bartolome egunean; Teo amak adar jotze aldera esaten zion maitekiro: “*Eskerrak Bartolo ez zizutela jarri gurasoek*”. Arratsalde-pasa egin genuen *Sorginaren Txabolan* eta *Los Llanosen* azkenik, bere trikuharri kuttunean. Solasean eta patxadan dotore eta maisu kontatu zizkidan gauza interesgarri eta bitxiak: *Los Llanos* trikuharriaren aurkikuntza, *Peña Larga* harpearena eta *San Juan Ante Portalatinam* hilobi kolektiboarena, zenbaitetan publikatu ezin diren kontuak, emozioak...

Tfiki-ffaka 2021. Ale berezia!



Peña Larga harpearen indusketa lanetan EHUko Javier Fernández (J.Fernández Eraso) irakasleak lagundu zion Vegasi karrera amaitu berrian zela. Gerora, Erasok berak hainbat aztarnategitan hartu zuen ardura, hala nola, *Peña Parda*, *San Cristóbal* eta *Los Husos* harpeetan. Neolotikoaren paisaia izugarriaren aurrean zeuden. Era berean, aipatutako trikuharrietan indusketa lan berriak egiteari ekin zioten J. A. Mujika (J.A. Mujika Alustiza. Donostia) irakaslearekin batera. *La Huesera* izan da ikertu zuten azkenetakoa 2010. urtearen inguruan. Berau Domingo Fernández Medranok aurkitu eta induskatu zuen estrainekoz 1948an. Trikuharrien zerrenda luzearekin amaitzeko Eskuernagako *El Montecillo* dugu, 2009an bertako bizilagun batek (J. L. Ibáñez. Villabuena-Eskuernaga) halabeharrez aurkitua.

Esan gabe doa, *La Hoya* herrixkak (1935ean kausitua. *Tell* motakoa) paisaia itzel horri eman dizkion indarra, garrantzia eta koherentzia. Azken urteak emankorrak eta oparoak izan dira geure arbasoen bizimodua eta ohiturak ezagutzeko eta ulertzeko.

Gure arbasoak mendietan eta larretan ibiltzen ziren artzain, eta *Los Husos* harpeetan hazi domestikatuak aurkitzeak nekazaritzan zihardutela erakutsi du argi. Lehenengo nekazariak orain 6.000 urte baino gehiago ibili ziren Ebro Bailaran, zalantzarik gabe. Toño lagunak (T. Gainzarain. Bilar) erakutsi zizkidan gure arbasoek erabilitako ikuilu horiek eta bertan diren bidezidor ahantziak. Toño, bertako milaka urteko haginaren zaindari eta laguna.

Atapuercako gure gidari prestuak zirrara begietan, zera esan zigun bisita amaitzear zela: *“Me considero un tipo afortunado. Estoy trabajando de lo que estudié. Estoy excavando, investigando. Y todo esto me permite socializar mi trabajo con todos vosotros. Necesitamos saber cómo vivían y sentían nuestros antepasados para poder conocernos mejor”*. Inkontzienteki Barandiaranek esandakoak etorri zitzaizkidan gogora Euskaltzaindiak *Bai Euskarari* kanpainaren barruko ekitaldietako batean: *“La manera de ayudarnos a nosotros mismos como pueblo, como mentalidad, es comprender nuestro pasado histórico-cultural, adquirir conciencia de dónde venimos y cuál ha sido nuestra experiencia, enterarnos de los elementos que nos vienen por ejercicio de los siglos, porque el camino que nos ha llegado por nuestras raíces es el que puede*

Tfiki-ffaka 2021. Ale berezia!

enseñarnos a resolver nuestro futuro” (Estudios de Arqueología Alavesa, 1978. Diputación Foral de Álava)

Neu ere, gure Álvaroaren antzera, zorionekoa nintzela pentsatu nuen nire kolkorako. Lagun askorengandik jaso dut dakidan guztia, eta horixe baliatu dut bestei musu-truk emateko abagunea izan dudanetan. Pedro lagunak (P. Uribarrena. Aramaio) irakatsi zidan zeramika puskak desberdintzen, inguruari bestela begiratzen, iraganarekin maitemintzen. Guillermorengandik etengabeko lana; lan handia, inurri-lana. Toñoarengandik eskualdearekiko maitasuna eta konpromisoa. Apaltasuna. Isi eta Miguelitorengeandik konplizitatea (I. López. Oviedo-iaz joan zitzaidana- eta Miguel. Oion); tarteka nire “ikasle” kuttunak. Vegas Aramburu jaunak trikuharri baten aurrean oraindik emozionatzea posible dela erakutsi zidan; Brian (Brian Webster. Filadelfia) ornitologo eta argazkilari handiak zein garrantzitsua den hegaztien hizkera



ulertzea, entzutea, gozatzea... Iñakirengandik jostaketa, gozatzea, sinistea, laguntasuna, finean... Eta beste askorengandik kontu on andana, seguruenik artikulua bidean aipatzeke geratu zaizkidanak. Eta, finean, kate-maila berean egotea gauza handia dela pentsatzen dut.

Imajinatzen dut, edota, agian, amestu nahi dut Atapuercako Miguelon eta bere senideak, orduantxe ehiztariak eta fruitu biltzaileak, Ebro Bailarako bidean jarri zirela noizbait, eta, harrezkeroztik, euren ondorengoak mendian gora larretan artzain ibiliko zirela, eta, gerora, garia eta garagarra landatu **Los Husos** eta *Peña Larga* inguruetan; trikuharri sendo eta tinkoak eraiki zituztela pentsatzea... Euskara izanen zela zerabilten hizkuntza amestea... Larrasa (Aitzetako larrea?), Recilla (Larre ttikia?) bezelako izenak eurek asmatu ote zituzten? Hori imajinatzeak nire ogibideari koherentzia punttu bat ematen diolakoan nago.

Gerora mahatsa etorri zen, baina hori beste istorio bat da.

Iruña-Veleia. Egia-rik Gabeko "Justizia"



2006an aurkikuntza egin zenetik 14 urtera badu sententzia gaiak: Gasteizko Zigor Arloko 1. Epaitegiak *Iruña-Veleia auziaren* epaia eman zuen 2020an, eta bi urte eta hiru hilabeteko zigorra ezarri zion Eliseo Gil indusketen arduradunari, agiriak faltsutzeagatik eta iruzurrarengatik. Haren laguntzaile Ruben Cerdani urtebete, hiru hilabete eta 23 eguneko zigorra jarri zion. Zigortuek ez dute kartzelara joan beharko, baina 12.490 euro ordaindu beharko dizkiote Arabako Foru Aldundiari. Eta kito? Bukatu da? Argitu da?

36 grafito faltsutu izana ondorioztatu du epaileak, baina benetan argitu du epaiak Iruña-Veleia auzia? Hasteko, ez daki epaileak nork faltsutu dituen grafito horiek, ez daki zer erabili den grafito horiek faltsutzeko, ez daki noiz eta nola faltsutu diren eta, larriagoa dena, zer pasatzen da gainerako lauhundik gorako grafitoekin, Epaiketa aurretik 476 ziren faltsuak, epaiketan bertan 291 eta sententziaren ondoren 36.

Epaiek faltsutzea (IPCE) Espainiako Kultur Ondarearen Institutuaren txosten batean oinarritu dute. Zeramikazko 36 pieza ikertu ditu, gainazala soilik aztertuz, non denetik egon daitekeen: zeramika, zarakarra, grafitoa eta kutsadura guztien lorratzak, lurperatzearenak, erauzketa-lanenak, garbiketarenak eta pieza batzuk eskuetan izan dituzten gutxienez zazpi erakunderenak.

Txosten hori ez da fidagarria. Adibidez, 15920. piezaren grafitoa «grafito garaikidea» dela dio (hau da, faltsua), «Testuaren trazadura altxairu herdoilgaitzezko zatikiak» daudelako; baina haxe ere aitortu du, «Litekeena da altxairuzko zatikiak garbiketa-prozesuan sartu izana», eta ikerketa gehigarri haxe proposatu du: «Piezak agertzen dituen ziurgabetasunak direla eta, zarakarrak modu kontrolatuan kentzea interesgarria izan daiteke piezaren azpian testurik dagoenez argi eta garbi egiaztatzeko».

Tfiki-ffaka 2021. Ale berezia!

Azken batean, txostena eginiko ikerleak ebatzi zuen 36 faltsuak zirela, 10-15 mikrako metal modernoek arrastoak zituztelako marretan. Mikel Albisu ikerleak azaldu du airean dauden partikulek dutela neurri hori, eta, gutxienez, 100 mikrako arrastoa utziko lukeela marka horiek egiteko erabilitako puntzoi batek.

Iruña-Veleiako zenbat aurkikuntza jo diren ezinezkotzat, eta, ondoren, zenbat eta zenbatetan ikusi den ezintasunik ez zegoela!

Iruña-Veleian 5 bat gurutze agertu ziren. EHUko Arkeologia Saileko irakasleen iritziz III-IV. mendeko gurutzerik topatzea ezinezkoa zen. Baina I- II. mendeko gurutze bat gutxienez bada. 150 urtetan ezinezkoa zen irudi hori zabaltzea Europan zehar kristautasunarekin batera? Emakume bat arrain buztanarekin aurkitu zuten Iruña-Veleian. Faltsutzat hartu izan da EHUko arkeologoek iritziz, Erdi Aro aurrekoak direlako marrazki mota horiek. Baina Tunezen III. Mendean ageri ziren horrelakoak. EHUko arkeologoek iritziz Iruña-Veleiako mahai baten marrazkia faltsua da, perspektibaz ez zelako horrelako marrazkirik egiten garai hartan. Pompeiako I. mendeko marrazki batek erakusten zuen egiten zirela. Aurkitutako gezi bikoitza EHUko arkeologoentzat ezinezkoa da, baina Frantziako I. mendeko irudi batek erakusten du kontrakoa. J letraren hastapena EHUko arkeologoentzat ezinezkoa da garai hartan. Antzeko grafia duten erromatar garaiko idazki batzuk ezinezkotasuna ezeztatu dute. EHUko arkeologoentzat bi grafitotan topatutako letra larriak eta xeheak egotea faltsukeriaren argudio garrantzitsua da, baina III. mendean jadanik biak batera erabiltzen zirelako testigantzak daude.

Zer gutxi jakin dugun hedabideetatik benetakoak diren-daitezkeenei buruz. Adibidez, hainbeste zabaldu den ustez RIP jartzen duen grafitoari buruz sententziak zera dio (gaztelaniaz, noski): “Pieza hori lantzean, Paloma Lopez Sebastian zaharberritzaileak egiaztatu ahal izan du bertan ez duela RIP jartzen, nahiz eta lehen begiratuan hala iruditu”. Zenbat hedabidetan gutxietsi dute Iruña-Veleiako aurkikuntza grafitoetako batean “Descartes” jartzen zuela eta. Aztertze gogo pittin bat izan duen edonork ikus dezake, ordea, ez dagoela “Descartes”ik, “Miscart” baizik. “A” artikulua dela eta, Josu Naberanek zioen: “Hizkuntzalari aplikatuak jakin beharko luke ATA, AMA, NIIBA, RIIBA, SABA, SIIBA (aita, ama, neba, arreba, osaba, izeba) organikoak direla, “ABA” (leinua) matritzetik datozenak, euskaraz zein iberieraz existitzen zirenak”.

Bai, 2006an Iruña-Veleian aurkitutako piezak aurkeztu zituztenetik gutxira piztu ziren dudak euskarari, kristautasunaren hedapenari eta antzinateari buruzko jakintza iraultzeak ziren ezohiko aurkikuntzez. Benetakoak ziren ala ez aztertze batzorde zientifiko bat eratu zuten 2008an, eta batzordearen ebazpena baliatu zuen Arabako Foru Aldundiak aztarnategia ustiatzen zuen Lurmen enpresa kaleratu eta arduradunen aurkako salaketa jartzeko. 12 urte luzeren ondoren badu sententzia, baina guk badugu egia?

Edozein delituren egilea topatzeko onura nork atera duen aurkitzea lagungarri gerta daiteke. Lurmenek urte askotarako kontratua zuen eta ez zuen gauza arraroak agertzeko inolako interes ekonomikorik. Halaxe aitortu du epaileak. Agertzen ari ziren platerekin, pitxarrekin eta bestelako tresnekin, konpontzen ari ziren hormekin... Eliseoren taldeak urte askotarako lana ziurtatuta zuen. Baina, orduan, nork atera du onura honekin guztiarekin?

Tfiki-ffaka 2021. Ale berezia!

- Academia de la Historia eta Alberto Santana. Euskalduntze berantiarraren teoria bultzatzen ari dira, eta, Iruña-Veleiakoa gezurtzat jota, jarrai dezakete beren teoria zabaltzen. Gainera, Santanak diru asko jasotzen du ETBtik dokumentalak egiteko, antzeko errebisionismo historikoak bultzatzeko (Inkiszioa ez zen hain gaiztoa izan, erromatarrak oso onak izan ziren...).
- Vatikanoa: kristautasunaren hastapenari buruz kontatu digutena hankaz gora jarri ez zaielako. Nola da posible Erromako kalbarioa baino lehen beste 6 kalbario egotea Europan eta erdiak Euskal Herrian?
- El Correok eta gainerako egunkari espainiarrek (El Pais...) jarrai dezakete esaten euskara ez dela Arabako hizkuntza izan, euskara hizkuntza zapaltzailea dela hemen zelta hitz egiten zelako, etab.
- EHU-UPVko Arkeologia Saila, Lurmen kanporatzen lagundu ondoren haiek sartu zirelako eta 1.500.000 eurotik gora kobratu dutelako. Eta egin zuten lehenengo gauza, buldozerrarekin egindako triskantza hura izan zen, antzeko ezer agertzeko beldurra zuten nonbait.
- Joseba Lakarrak bere antzieskararen teoria oraindik mantentzeko, eta horri esker

Euskaltzaindiak euro askotako lana eman zion hiztegi bat egiteko.

Egia jakin nahi dugunontzat orain arteko prozesuan hamabi urte galdu dira. Zientzia da gai hau ebazteko bide bakarra, grafito horiek noiz grabatu diren jakiteko berariazko azterketak eginez eta grafito gehiago agertzen diren ala ez ikusteko indusketa kontrolatu bat abiaraziz. Egia jakitea horren erraza litzateke!





Zer da Euskaraldia?

Euskara ulertzen duten hiztunen arteko **hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala da**. Euskaraldia gizartearen gune guztietara zabaldua, eta denborari dagokionez mugatua. Euskaraldiaren helburu nagusia herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea da. Norbanako bezala (*ahobizi* edo *belarriprest* izanda) parte hartzeko aukeraz gain, taldean parte hartzeko aukera ere badugu *ariguneren* bidez.

Ahobizi eta Belarriprest.

Ahobizi.

Euskaraz egingo diezu ulertzen duten guztiei. Edonon, edonoiz eta ulertzen duen edonorekin arituko zara euskaraz. Ezagutzen ez dituzunekin lehen hitza euskaraz egingo duzu, eta ulertzen baldin badute, hortik aurrerakoak ere.

Belarriprest

Euskaraz dakiten guztiei zuri euskaraz egiteko gonbitea egingo diezu. Euskara ulertzen duzula adieraziko diezu, eta zurekin euskaraz hitz egin dezatela eskatu. Zuk euskaraz edo erdaraz erantzungo duzu, baina zuri euskaraz egiteko eskatuko duzu.

Ariguneak.

Euskaraz lasai hitz egiteko modua jartzen duten **lekuak dira** ariguneak bermatzen dutenak partaide guztiek ulertu behintzat egiten dutela euskara, eta, beraz, arazorik ez dela sortuko euskaraz egiteagatik. Alegia, leku horietan denek lukete behinik-behin *belarriprest* izateko adinako euskara ezagutza.

Bi motatako ariguneak zehaztu dituzte Euskaraldirako. Batetik, **barne ariguneak**: leku eta talde itxietakoak. Adibidez, enpresa bateko departamentu bat. Denek ulertu behintzat egiten badute euskara, aukera dute Euskaraldian talde gisara parte hartzeko kide bakoitzak hautatuta *ahobizi* edo *belarriprest* izan.

Kanpora begirako arigunea da bestea. Herritarrekin erlazioa duten entitateei eragingo die: saltokiei, zerbitzu publikoei, bezeroei kasu egiteko lekuei...

2020ko Euskaraldiaren balorazioa

- 1.- Ariketa sozial masiboa.** Euskal Herrian 179.780 lagunok eman dugu izena.
- 2.- Herri-gogoa hauspo.** Euskal gizarteak berriro erakutsi du garai zailetan ere gai dela ariketa sozial honen bueltan indarrak bildu eta Euskal Herri osora zabaltzeko.
- 3.- Hizkuntza ohitura aldaketa, ariketaren ardatz.** Ariketa soziala da Euskaraldia, parte hartzaileak hizkuntza praktiken gaineko hausnarketa egin, eta hizkuntza ohiturak aldatzera bultzatzen dituen ariketa
- 4.- Euskararentzako guneak irabazten, entitate askoren erabakiari esker .** Euskararentzako gune erosoak sortzea behar-beharrezkoa dela sinetsita, ariguneak sortzeko proposamena helarazi diegu era guztietako entitateei. Milaka enpresa handi eta txiki, merkatari, erakunde publiko eta era guztietako elkarte batu dira Euskaraldira.
- 5.- Herri batzordeak Euskaraldiaren oinarri.** Hilabete zailak bizi izan ditugu eta ez da erraza izan herrietako batzordeen dinamikari eustea eta kalean lan egitea. Lehen edizioan baino udalerrri gehiagotan antolatu da Euskaraldia, tokian tokiko euskalgintza, erakunde eta euskaltzaleei esker. Nahi genuke Euskaraldiak abiatu dituen hainbat batzorderen lanak jarraipena izatea Euskaralдитik harantzago ere. Herriz herri euskaltzaleon mugimendu indartsu bat da euskararen normalizazioan urratsak ematen jarraitzeko oinarrietako bat euskararen normalizazio bidean askotariko ekimen eta jarduerak antolatzen jarraituko dituen mugimendu indartsua.
- 6.- Lankidetzak.** Euskarak eta euskaltzaleok euskalgintzan ari garen gizarte eragileen, erakunde publikoen eta bestelako eragileen arteko indar uztarketak behar ditugu. Herritar norbanakoak, boluntarioak ere badira lankidetzak horren parte.
- 7.- Biharko eguna ere garrantzitsua da.** Berriz ikusi dugu uste duguna baino jende gehiagok ulertzen duela euskaraz; norberak ekiteak inguruan ere eragiten duela; uste baino gehiago bizi gaitezkeela euskaraz. Ingurune digitalean ere urrats asko ditugula emateko; tresna txiki batzuekin errazago egin dezakegula; ohiturak aldatzea posible dela.
- 8.- “Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan”.** Euskaraldiaren bigarren edizioan ere erakutsi dugu elkar hartuta inertiak apurtzen, ohiturak aldatzen eta euskararentzako guneak irabazten jarrai dezakegula.

Arabako Errioxan

Gurean ere bigarren aldia zen Euskaraldiaren ariketa soziala egiten genuena. Gainera 2020ko udazkenean bizi genuen egoera ez zen inolaz ere egokiena erabilera sustatzea eta saretzea helburu duen proiektu bat martxan jartzeko, baina oztopoak oztopo aurre egin genuen.

Euskal Herrian

3.193.513 biztanletik 180.000 mila pertsonak parte hartu zuten. 485 izen emate eta ia herri guztiek parte hartu zuten (% 5,6).

Tfiki-ffaka 2021. Ale berezia!

Arabako Errioxan

Honako herriek parte hartu zuten: Bilar 12, Bastida 92, Ekora 15, Eltziego 33, Eskuernaga 48, Kripan 5, Biasteri 48, Lantziego 35, Lapuebla 83, Leza 20, Mañueta 4, Moreta 4, Oion 124, Samaniego 32 eta Navaridas 14. 11.419 biztanle bizi gara eta 523 lagunek parte hartu zuten Euskaraldian (% 4,58).

Ezin da ukatu kopuruari dagokionez, jendearen parte hartzea % 25 jaitsi zela 2018an antolatu zen Euskaraldiarekiko. Ondorioz, botila nola dago, erdi beteta? Edo erdi hutsik? Uste dugu bertan behera gelditzeko zorian egon zen proiektu bat izateko, pozik egoteko moduko emaitzak lortu genituela. Ezin da ukatu Oionen eta Navaridasen izan ezik, beste herri guztietan izen-emateak behera egin zuela, baina jendea elkartzeko genituen arazoak: kutsatzeko beldurra, gaixoak, heriotzak... Gizartea sartzeko ariketa soziala egiteko baldintzak ez ziren onenak, baina hala eta guztiz ere, aurrera egin genuen.

Eta orain zer?

Euskaraldia bi urtean behin egingo dugun ekintza izango da **Korrika** bezala? **Topaguneak**, Euskaraldiaren antolatzaileak, dioenez, euskal gizartearen aktibazio honi jarraipena eman behar zaio. Gai bagara hamar egunetan zehar euskararen erabilera hogeita lau ordutan bultzatzeko, zergatik ezin dugu egunero edo noizean behin zerbaitekin egin horren alde?

Asko gara euskararen normalizazioaren alde gaudenok Euskal Herrian eta aldi berean Arabako Errioxan. Gaudenok ondo antolatu eta sarea eraikiz indar handia eta eragin handia izan dezakegu etorkizunean. Bakoitzak ahal duen eran, tokian; batzuek gehiago, besteek gutxiago, baina denok zerbaitekin... Hortxe dugu erronka!




Bizi gira, Kutxa Bira!


Aurten ere, ez dugu izan Korrikarik, Euskal Kultur Astebururik... Bai, euskararen aldeko festa eta ekimen asko bertan behera gelditu dira edo nahi baino modu mugatuagoan ospatu dira. Hala ere, **Kutxa Bira** iritsi zaigu Arabako Errioxara eta inguruko herrietara, eta euskararekiko atxikimendua adierazteko aukera izan dugu. Hala, maiatzaren 19an, Zieko, Eskuernaga eta Bastidatik pasatu zen kutxa; maiatzaren 21ean, Biasteri, Lapuebla, Oion eta Vianatik; eta, maiatzaren 22an, Mendabiatik.

Herri horietan, beraz, kutxa barruan zetozen Amets Arzallusek idatzitako hitz ederrak entzuteko parada izan dugu:

“Hitza da gure lurra. Lur hau ez da gure jabetza, bizi garen lur hau guretzat zelako promesa ez zuen inork egin, ez zigun inork hitz eman. Hitza guk eman genion lur honi, auskalo noiz eta nondik hona iritsi ginenean, babes beharrean. Hemen landatu genuen gure hitza, eta landare hartatik sortu zen harreman sare mugagabe bat, orain gure herria dei dezakeguna, Euskal Herria, euskara eman eta hartzen duen jendea. Hizkuntza da, oraingoz, munduak eskaini digun bizi leku bakarra: hitza da gure lurra.”



Tfiki-ffaka 2021. Ale berezia!



Tfiki-ffaka 2021. Ale berezia!



INGUA N...
LITZA DA
...BRA





1997. urtea zen, eta 29 elkartek “TOPAGUNEA Euskara elkarten federazioa” osatzea erabaki zuten. Federazioaren elkarte sortzaileen artean Arabako bi: Gasteizko GEU eta Arabako Errioxako TTIKI-TTAKA.

Hamar urte lehenago hasi zen zenbait herritan euskararen erabilerari herritik bertatik bultzada emateko mugimendua. Tokian tokiko euskaltzaleak elkartu, egoera aztertu, kezka eta ametsak mahai gainean jarri, planifikatu eta ekin. Tokikotasuna izan da hasieratik elkartekideen lanerako gogoaren biltegia, hau da, herritar euskaltzaleek herriko ezagutza eta gertutasunetik abiatuta herrikideengan eragiteko nahia. Hala ere, antzeko kezka eta gogoak mugitzen zituzten hemengoak eta hangoak, hortaz, denbora kontua zen bidean bat egitea.

“Egin eta eragin” izan zen batzuek eta besteek —berez edo ondo hausnartuta— aukeratu zituzten leloa eta ekinbidea, eta, ondorioz, ekintzak ere antzekoak izaten ziren: kultur ekitaldiak, ume eta gaztetxoek aisialdirako ekintzak, ikasteko eta erabiltzeko sentsibilizazio lana, tokiko aldizkari eta irratiak, hausnartzeko eta planifikatzeko jardunaldiak, denetariko hitzaldiak, aste kulturalak, mendi irteerak, mintzalagun eta gurasolagun taldeak... Tokikotasuna bai, baina horrez gain —eta hori indartzeko— elkartu, esperientziak trukatu, jarduera bateratuak abiatu, bakarka ezin dena elkarrekin egin, elkarrengandik ikasi, gogoetak partekatu, erakundeekin eta euskalgintzako gainontzeko eragileekin harremanak izateko ordezkaritza izendatu, elkarte gehiagoren sorrera sustatu, hasi berriari edo ahul dagoenari lagundu... Bazituzten, bai, elkartzeko arrazoiak, eta horiek dira elkarrekin jarraitzeko ditugunak.

Euskaltzaleen topagunea da gaur egungo izena eta 70 elkarte bazkideak. Horietako 12 Arabakoak dira, eta horien artean GEU Gasteiz euskalduna eta Arabako Errioxako TTIKI TTAKA elkarte sortzaileak daude.

Tfiki-ffaka 2021. Ale berezia!

Euskaltzaleen Topagunearen Arabako bazkideak

AIARALDEA EKINTZEN FAKTORIA. Aiaraldea / BASALARRINA. Audio / BELAIKI. Baranbio / GEU. Gasteiz / HOGEITALAU. Aiara / KIRIKIÑO. Audio / LAN ETA JOLAS. Urkabustaiz / LAZARRAGA. Gasteiz / OLBEA. Agurain / SORGINLARREN. Audio / TTIKI TTAKA. Arabako Errioxa / TXIRRITOLA. Aramaio

Federazioaren kide diren elkarteek erabakitzen dute, noski, egin nahi dutena eta Topagunetik egiten zaizkien proposamenetatik zein baliatu haien herrietan euskararen erabilera sustatzeko. Proposamen horiek, normalean, Euskal Herri osorako sortutako egitasmoak izaten dira; adibidez, *mintzalaguna* edo *euskaraldia*. Kasu askotan, elkarteek egiten duten lana indartzen edo osatzen lagun dezaketen eskaintzak dira; esaterako: Kultur Errotaren emanaldiak, *Laburbira* izeneko film laburren zirkuitua, *irakurri gozatu eta oparitu*, *Zergatik ez?* motibazio tailerrak... Topagunearen beste funtzioetako bat gogoeta zein esperientziak trukatu eta elkarrengandik ikasteko foroak antolatzea da, eta egin egiten dira; adibidez, urtean behineko *Topaldia*, *1eratu* jardunaldiak, Gazte euskaltzaleen topaketak, Arabako elkarten batzarra, proiektu azoka...

Egitasmo bateratuez gain, herrietako euskaltzale boluntarioez osatuta dauden elkarteek antolatzen dituztenak asko eta askotarikoak dira. Gehien-gehienek dituzte kulturari lotutako jarduera puntualak edo jarraiak; askok haur, gaztetxo edota familiei zuzendutako aisialdi ekimenak, tokiko hedabideak, hitzaldi zikloak, ikasteko eta erabiltzeko sentsibilizazio kanpainak... Izan ere, denetarik behar dugu euskara biziz euskaraz bizi —eta euskara bizirik— nahi dugun euskaldunok. Hortaz, hemendik dei bat Errioxako euskaltzaleoi Kuadrillako elkarte eta ekimen euskaltzaleetan parte aktiboa izateko. Merezi du, eta merezi dugu.





Esti Redondo

Ibilbide azkarra

Oiongoa. *San Bizente* ikastolan hasi zen ikasten; gero, *Gasteizko Koldo Mitxelenan* bigarren hezkuntza. Bilbon *Kazetaritza* ikasi zuen. Oionera bueltatu zen eta, handik gutxira, berriro Bilbo aldera jo zuen, eta, ondoren, Hego Amerikara. Azken urteotan, *Zaldibar* eta munduko leku urrunak tartekatzen ditu.

Lan-ildoak

Elikadura burujabetza eta feminismoaren alde, ikuspegi internazionalistarekin.

Bilbotik itzulitakoan Ttiki-ttaka elkartearen ibili zinen, eta Kinkirrin taldea sortu zenuten. Gogoratzen duzu zergatik sortu zenuten?

Kazetaritza ikasten nabilela, bueltatu nintzen Oionera sei hilabetez Arabar Errioxako irrati eta aldizkarian praktikak egitera. Naturala iruditu zitzaidan Ttiki-ttakan parte hartzea; garai hartan inguruan militantzia aukera gutxi zegoen, eta elkarteak Arabar Errioxan euskara zabaltzeko egin duen lana oso ona iruditu zait beti.

Ttiki-ttakarekin batera sortu genuen Kinkirrin. Ordura arte udaleku irekiak gazteleraz ziren eta umeek aisia euskaraz gozatzeko aukera izatea garrantzitsua iruditu zitzaigun. Bestetik, ikastolako ikasle ohiak ginen, eta gazteleraz erlazionatzen ginen helduen arteko euskarazko komunikazioa praktikatzeko aukera zen. Zentzu horretan, ikastolarekin eta Arabar Errioxako Koadrilarekin batera lan egin nahi izan genuen. Hika-mika ugari izan genuen bai batekin, bai bestearekin... baina gure helburuekin jarraitu genuen, eta garai batez euskarazko aisialdirako eskaintza xumea lortu genuen.

Ondoren, Bizkaira itzuli zinen eta EHNEn hasi zinen lanean. Etxaldeetako emakumeen lanaren inguruan jardun zenuen, ezta? Zer esperientzia izan zenuen? Bizkaian *Nekazaritza Ekologikoa* ikasi nuen baina, egia esan, nire bidaietan maitemindu

Tfiki-ffaka 2021. Ale berezia!

nintzen nekazaritzarekin. Bizkaian bai, EHNE Bizkaia sindikatuan urte asko eman ditut formakuntza atalean. Bertan apur bat denetarik egin dut: tailerrak, kurtsuak, hitzaldiak... Eta *Etxaldeko Emakumeak* taldea sortu genuen, agroekofeminismoa definitu genuen, eta lanean hasi ginen. Ni orain urruti nago, halere, zibernetikoki taldean parte hartzen dut, eta izugarria iruditzen zait urte gutxitan egin dugun/duten lana; erreferente garrantzitsua bihurtu gara feminismoan.

Aldaketa handi bat izan zenuen gero; alegia, Hego Amerikara jo zenuen. Nolatan eman zenuen pauso hori? Zer proiektu zenuen? Zenbat denboratarako?

Hego Ameriketara bidaiara asko egin izan ditut. Lehenengoa Erdialdeko Amerikara izan zen, eta bertan urtebete pasatu nuen. Gerora bi urte pasatxo eman nituen Hego Amerikan eta ondoren urtero hiru hilabete txangoa egiten nuen. Beti izan dira *Via Campesinaren* lotutako bidaiak eta proiektuak. Kontaktuekin heldu eta mugimenduek dituzten beharren arabera haiekin batera lan egin izan dut. Batzuetan agroekologi kontuetan (agroekologia eskolatan, adibidez), edo bioeraikuntza tailerrak eginez; nire kazetaritza urteak ere probestu ditut komunikazio lantaldeetan laguntzeko; eta azken urteetan oso indartsua izan da feminismoaren gaia eta horren garapena. Nagusiki Amerikan egon naizen arren, Indiara ere joan nintzen, nekazal mugimendua ezagutzera.



Orain dela urte bi eta erdi Brasilera joan nintzen hiru hilabete egiteko asmotan, baina MPAK (Movimento dos Pequenos Agricultores) geratzeko proposamena egin zidan, eta ia batera, master bat egiteko aukera zabaldu zen. Beraz, Bahian geratu nintzen bioeraikuntzak egiten, feminismoa lantzen, ikasten, eta komunitate baten egunerokotasuna bizitzen.

2020ko martxoan Argentinara etorri nintzen hemengo lagunak ikustera eta mugimenduak zituen ekintza batzuetan parte hartzera, hilabete ostean Brasilera bueltatzeko asmoarekin. Baina pandemiak eta koarentenak harrapatu ninduten eta hemen jarraitzen dut. *Movimiento Nacional Campesino Indígena Somos Tierra* mugimenduan, *Movimiento Campesino de Córdoba*an, hain zuzen.

Brasilen, multinazionalak Bolsonaroaren laguntzarekin familia asko utzi dituzte lurrik gabe. Zer gertatzen da? Nekazari txikien bizimodua nolakoa da?

Ez bakarrik Bolsonaroaren laguntzarekin. Egia esan, Brasilgo estatuak (Argentinan antzera) agronegozioaren aldeko apostu handia egin du azken 20-30 urteetan. Zentzu horretan, momentu batzuetan eta herri mugimenduen borrokari esker lur batzuk berreskuratu diren arren, politika orokorra oso urruti egon da nekazal erreforma herrikoitik.

Brasilek eta Argentinak agronegozia babesten dute politika publikoen bidez: zergak, diru laguntzak, esportazio legeak... Eta gobernua "ezkerrekoak" izan direnean, agroekologiari eta nekazal eredu txikiari keinu batzuk egin dizkiote, baina ez dute sekula sistema aldaketarik planteatu. Beraz, berriz ere "eskuinak" irabazi duenean, keinu horiek bertan behera utzi ditu, eta nekazariak (beste herritar langileekin batera) egoera oso konplikatuan jarri ditu.

Tfiki-ffaka 2021. Ale berezia!

Hala ere, nekazari txikiek ateratzen dute indarra eta lurrak, pabiloiak... okupatu dituzte bizirauteko. Inongo babesik al dute?

Zer konta diezagukezu gai horretaz?

Halere borrokak aurrera dirau, bai. Okupazioekin, ekoizpenarekin, formakuntzarekin, osasun sistema berezkoekin, elkartasunarekin eta lan asko-askorekin. Momentu honetan egoera oso zaila da; hezkuntza sistemaren aurrekontua 2004ko zenbakietara jaitsi da (unibertsitate publikoak ixtear daude, herri mugimenduek lortutako heziketa sistema berezia arriskuan dago...), osasun sistema pribatizatzen ari dira, bertako produktuen erosketa publikorako programak desagertzen ari dira, indarkeria zilegitzen duen gobernuarekin herri indigena eta nekazarien kontrako erasoak biderkatu dira... Ez da panorama erraza. Momentu honetan Brasilek nazioarteko mugimenduen laguntza eta elkartasuna behar ditu; Brasilgo *Via Campesina* beste herrialdeekin oso eskuzabala izan da; orain eskuzabaltasun horrek hara heltzea behar du.

Argentinan ere antzeko komunitateekin egin duzu lan, ezta? Kontaguzu pixka bat.

Argentinan egoera politikoa apur bat baretu da Macrik gobernu galdu zuenetik, baina egoera ez da ideala. Ni nagoen lurraldeetan lur gatazkak handitu egin dira koarentenaz geroztik. Mugimenduko kide eta komunitateak lurrak galtzeko arriskuan ditugu. Horrez gain, aldaketa klimatikoak lur hauek ur gabe utzi ditu eta landa eremuan mantentzea gero eta zailagoa da. Nekazariak ez dituzte lurrak utzi nahi, eta bide berriak asmatzen dituzte: produkzio berriekin, komertzializazioan, antolakuntzan...

Berri pozgarriekin ere idatzi izan duzu *Argia* aldizkarian; esaterako, Argentinan nekazal unibertsitatea sortu zela irakurri genizun. Brasilen ere sortu izan dituzte nekazal eskolak...

Momentu honetan, Brasilgo sistema osoa zalantzan dago, arrisku larrian aurrekontu eta borondate faltagatik.

Argentinan unibertsitateak aurrera egin du, eta, horrez gain, probintzietan dauden agroekologia eskolak eta baserritar eskolak. Mugimenduetan militantziak lan izugarria egiten du landa eremuetan bigarren hezkuntza posible egiteko, eta belaunaldi berrietan jaso duten hezkuntza herrikoia nabaria da.

Argentinan abortoarene aldeko legea onartu zenean hor zinen. Zer izan da erabaki hori hangoentzat? Zer-nolako erreakzioak izan dira? Pozik hartu dute?

Askok ikusten dute oraindik egiteko?

2020ak utzi zigun berri pozgarria izan zen abortoarene legeztatzea! Ez bakarrik legeztatu, baizik eta publiko eta doakoa izatea. Euskal Herrian oraindik ez gara puntu horretara heldu. Onartu zen legea ez zen izan mugimendu feministak eskatzen zuena, hainbat puntu kanpoan geratu baitziren, baina, halere, aurrerapauso ederra izan zen gure gorputzengan erabakitzeke aukera dugula publiko egiteko.



Onartu zen eta protokoloak martxan jarri zituzten, baina oraindik bide luzea egin behar da eskubidea bermatzeko. Oro har, ospitaleko langileek duten borondatearen eta ideologiaren esku dago. Abortoarene aldeko profesionalak baldin badaude, askoz errazagoa da.

Landa eremuetan are gehiago konplikatzen da asuntoa. Ni bizi naizen

Tfiki-ffaka 2021. Ale berezia!

zonaldean profesional talde indartsua dago, nekazal mugimenduarekin lotura duena, eta haien militantziari esker emakumeen eskubidea bermatzen dute. Baina inguruko beste ospitaletako kasu piloak ere jasotzen dituzte, han ez delako bermatzen. Eta orain ospitalea COVID kasuekin beteta dagoenez, zailagoa da.

COVID-19k non harrapatu zintuen? Zer moduz bizi izan duzu pandemia hau inguru horietan?

Pandemiak Buenos Airesen harrapatu ninduen, komunitateetan denbora piloak eman ostean, jairako gogoa neukan, eta, horregatik, joan nintzen hirira. Ezin jairik egin, eta, gainera, hirian sartuta pasatu nituen lehenengo hiru hilabeteak! Ez naiz kexatuko halere: lagun oso min baten etxean harrapatu ninduen, eta horrek asko lagundu zigun. Nekazal mugimenduak bere tentakuluak mugitu zituen eta hiritik hona ekartzea lortu zuten. Hemen koarentena komunitarioa egiten dugu, gure burbuila propioa daukagu eta kontu handiz ibiltzen gara elkar zainduz. Beraz, ezin naiz kexatu; uste dut pandemia era pribilegiatuan bizi dudala... Hemen negurako bidean gaude eta kasuak biderkatu dira oso era larrian; beraz, oso itxita gaude.

Bidaia-aseguruekin haserre antzeman zaitugu. Zer gertatu zen?

Momentu batean izutu nintzen nire bidaia-asegurua pandemia garaian koberturik ez nuela esan zidalako. Borrokatu nintzen eta publikoki salatu nituen. Azkenean, kobertura berreskuratu nuen.

Non zabilta orain? Zertan?

Orain *Paso Viejo* bizi naiz, Cordoba probintziako Ipar-mendebaldean, Argentinan. Nekazal mugimenduko komunitate batean. Feminismo lantaldean parte hartzen dut, eta momentu honetan produkzio lantaldearekin ekonomia feminista eta beste hainbat gai egituratzeko bidean ari gara. Formazio lantaldearekin tarteka gauzak prestatzen ditugu, eta osasun lantaldearekin formakuntza-bideo batzuk argitaratzen gaude.

Horrez gain, Brasilgo MPAko genero lantalde nazionalen parte hartzen dut eta beraiekin Feminismo Nekazari eta Indigenari buruzko liburuxka eta bideotxo batzuk argitaratzen ari gara. Eta emakumeen ekoizpenen inguruko ikerketa bat egiten ari gara... bueno, eta gauza gehiago.

Beraz, denboraren parte handi bat militantzietan murgilduta. Baina, horrez gain, bi diplomaturatan hasi naiz, bisatua lortu ahal izateko. Eta komunitateko bizitzak dituen beste gorabeheretan ere parte hartzen dut, jakina!

Euskal Herrira itzultzeko asmorik baduzu?

Euskal Herrira bisitan bueltatzeko gogo handia dut. Lagunak eta familia ikusteko gogoak. Baina momentu honetan hori ez da posible, eta, beraz, ez dut askorik pentsatu nahi. Hemen ikastea erabaki nuenean, nire egonaldia luzatzea ere erabaki nuen. Eta hori disfrutatzen ari naiz. Ez dut inoiz askorik pentsatu non bizi nahi dudan “betiko”, baina beti sentitu dut nire erroak Euskal Herrian daudela, eta hara bueltatuko naizela. Oraindik ere hori sentitzen dut, baina pandemiak ziurtasun guztiak hankaz gora jarri ditu, ezta?

Tfiki-ffaka 2021. Ale berezia!



Tfiki-ffaka 2021. Ale berezia!

denborapasak

hizki 2021

ARABAKO ERRIOXAKO HERRIAK

23 daude, baita txikiak ere.

H	A	G	A	Z	T	A	G	N	O	D	A	R	U	B
P	J	G	Z	K	M	N	E	P	B	D	N	O	I	N
U	L	I	D	G	H	K	F	M	A	Ñ	U	E	T	A
Z	K	S	C	T	I	J	J	K	S	L	M	S	C	B
G	U	A	R	D	I	A	E	I	T	R	D	O	B	A
K	R	U	W	X	H	D	Z	Y	I	Y	S	N	Ñ	R
L	A	N	T	Z	I	E	G	O	D	T	L	A	A	I
I	R	D	E	X	G	O	P	I	A	L	V	G	N	D
R	O	X	C	F	S	L	M	O	R	E	T	A	M	A
E	K	R	I	P	A	N	W	N	O	I	A	P	B	S
P	L	E	Z	A	G	O	R	R	E	B	U	S	T	O
S	I	X	I	W	E	O	G	E	I	N	A	M	A	S
A	H	E	A	C	K	S	I	A	Z	A	R	B	A	L
N	T	O	S	X	L	A	P	E	B	L	A	P	T	J
I	F	B	S	E	R	N	A	Ñ	W	Y	E	I	A	P
B	I	L	A	R	Ñ	P	E	L	T	Z	I	E	G	O

Tiki-taka zoz. Ale berezia!

txisteak

-Miren, bi izenordain esango dizkidazu?
-Nork, nik?
-Eskerrik asko!

Tok, tok!
-Zein da?
-Lapu.
-Zer Lapu?
-Lapurrak!



Txistea oso txarra zen. EZ zuen kartetan inoiz irabazten.

asmakizunak

Bi hanka izan arren
ezin dugu biderik burutu,
baina gizona gu gabe
ezin da inon aurkeztu.
ZER NAIZ?


Zenbat sagu jan ditzake katu batek baraurik?



Ezkatak ditut baina ez naiz arraina. Koroa dut baina ez naiz erregea. Zer naiz

PRAKAK
GEROKAK EZ DIRA BARAURIK IZANGO.
ANANA

hieroglifikoak



GORRI
BELAR
ERRAZA
BURDINA

Ttiki-ttaka 2021. Ale berezia!

non gogoa, han zangoa

Ondoko irudiok Ttiki-ttaka elkarteak egindako hainbat kultur ekitaldiren berri ematen digute. Ibilbide luze honetan asko izan dira egin direnak: antzerkiak, hitzaldiak, EKA Egunak, kontzertuak, ikastarotxoak, erakusketak, zinea... Asko, bai horixe! Eta geure hizkuntzak behar duen zabaltze horretan buru-belarri jardungo dugu askoz ere gehiago antolatzen. **Bejondeizuela, Ttiki-ttakakideok!!!**



Ttiki-ttaka 2021. Ale berezia!



Tfiki-ffaka 2021. Ale berezia!



tiki
taka



euskaldunon elkarte

Bazkide izan nahi baduzu, behealdeko fitxa bete ezazu eta bidali gure helbidera:

ttikittakaaurrera@gmail.com

*Kuotari dagokionez, 20 euro dira urtean. **Egin zaitez bazkide!***

Deiturak _____ Izena _____

Posta elektronikoa _____

Jaiotza-data _____ Helbidea _____

Herria _____ Pta. Kodea _____ Tfnoa _____

KK edo libreta zkia _____

Data _____

Sinadura